



Banka

Kontuak garbi!



❗ Ba al dakizu **zenbat kontu dituzun**, zer motatakoak diren eta zer erakundetan dituzun? *Kontrola itzazu* eta balioetsi ea beharrezkoak diren.



Zure diruarekin ez da jolasten: konparatu kontuak eta zer eskaintzen dizuten. Aukera ezazu gehien komeni zaizuna.



❗ Edozein eragiketa egin aurretik, *erreparatu* ea **komisiorik** kobratuko ote dizuten.



❗ Saihestu kontuak **agerian** uzten, **komisio handiak** kobratzen dituzte-eta. Zenbaki gorritan geratzeko arriskuan zaudela uste baduzu, *jakinarazi erakundeari* alternatibaren bat bilatzeko.



❗ *Erabil ezazu Internet bidezko banka-zerbitzua.* Komisioak **saihestuko** dituzu edo leihatilan baino **txikiagoak** izango dira.



❗ **Txartelak** zure dirua eskuratzeko bidea dira. **Galduz gero edo lapurtuz gero**, har itzazu beharrezkoak diren neurriak. *Deitu berehala* bankura txartela baliogabetzeko eta, lapurretaren kasuan, salaketan aipatu desagertu zaizula.



Eman baja erabiltzen ez dituzun txartelei. *Komisiorik gabekoa?* Kontsulta ezazu zenbat denboraz izango den doan.



❗ *Kutxazain batean dirua ateratzeko asmotan?* Hobe **zure erakundekoa** hautatzen baduzu. Erne ibili: eragiketa onartu aurretik, komisioa zenbatekoa den jakinaraziko dizute.



❗ Eskatu **idatziz** informazioa. *Ez al dituzu ulertu kontratuko baldintza guztiak?* **Ez sinatu** ezertxo ere zalantza guztiak argitu arte.



❗ Erakundearekin *gatazkaren* bat izanez gero, baliatu **erreklamazioa jartzeko eskubidea**.



kontsumoBIDE

KONTSUMORIKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

www.kontsumobide.eus

